



DANON ARTEAN ZAIN'TZA EKOSISTEMA BAT SORTZEN

Talde eragilearen hirugarren saioa

Usurbil, 2021-09-20



BERTARATUTAKOAK eta SAIOAREN EGITURA

BERTARATUTAKOAK	
1. Belen	Zaintzaile familiarra
2. Iñaki	Zaintzaile familiarra
3. Maria	Herritarra
4. Fatimetou	Zaintzaile profesionala
5. Maider	DYA
6. Kontxi	Gizarte zerbitzuak
7. Aitziber	Egoitza
8. Maria	Gizarte zerbitzuak
9. Itziar	Zinegotzia
10. Agurtzane	Alkatea
11. Miren	Emagin
12. Mari Jose	Osakidetza
13. Ainhoa	Adinberri
14. Maider	Matia
15. Erkuden	Matia
16. Ainara	Matia

SAIOAREN EGITURA

- Ongietorria
- Nodik gatozen eta nora goazen bistaratzea
- Ekosistema eratzeko dinamika
- Saioaren ebaluaketa



NONDIK GATUZ ETA NORA GOAZ

Saioari hiru taldetan banatuta eman diogu hasiera. Eta bertan lehen ariketa orain arte egin dugun ibilbidea errepasatu eta hurrengo pausuak zein izango diren zehaztea izan da. Horretarako ondorengo irudia erabili dugu:

DENON ARTEAN ZAINTZA EKOSISTEMA BAT ERAIKITZEN

Nondik gatoz?



Aurrelanketa bilerak

martxoa

Proiektu aurkezteko egutako bilerak:
- Zaintzaileak
- Zerbitzuak emateko erakundeak
- Ekarleak, herritarak



Herriari aurkezpena

apirila

Mayte Saicho eta Enagoi-eko Mirenen eskutik Usurbilgo zaintza diagnostikaren aurkezpena eta jarrizaren inguruko hausnarketa.



Talde eragileak sortzea

maiatza

Maiazaren zehar kurtutako talde eragileak sortuko dituen partaidetza.

Talde eragileak: 1. saioa

maiazaren 24a

Talde eragilearen funtzionamendua gain denon artean zaintza zer den eta zer egaituzten direnaren inguruko hausnarketa.



Talde eragileak: 2. saioa

ekainaren 21-a

Herriko zerbitzu, programa, eragile eta ekipamendu eta zaintzarako topaguneen inguruko.

DENON ARTEAN ZAINTZA EKOSISTEMA BAT ERAIKITZEN

Nora goaz?



Zaintza ereduak adostea

iraila-abendua

Denon artean nolako zaintza ereduak nahi dugun adostea izango da hurrengo pausua.



Foro parte-hartzaileak

abendua aurretik

Talde eragilean dibertutako ereduak etxi leberdinetarako sartzeko diren espazietan parte-hartze eta ekarpenak jasoko dira (zaintzaileak, zerbitzuak, erabiltzaileak...)



Sentsibilizazioa

Prozesuan zehar

Herritarren artean zaintza eredu publikoaren zabalera eta herritarren artean gai hau mahai gainaratu eta hausnarketa hori denon sentsibilizazioa eta kontzientzia lortzeko egongo da.

Ibilbide-orria zehaztu

Urtarriletik aurrera

Adostutako ereduak herritarrekin partekatzen hasi behar diren zehaztea.



Martxan jartzea!

USURBIL



USURBIL



ZAINZA EKOSISTEMA DISEINATZEN

Berriz ere taldeetan banatuta etorkizuneko zaintza-ekosistema nola irudikatzen dugun hausnartzeko ariketa burutu da. Hauek izan dira taldeak:

Lehen taldea: Maria, Kontxi, Belen, Fatimetou, Maider

Bigarren taldea: Miren, Itziar, Agurtzane, Aitziber, Erkuden.

Hirugarren taldea: Itziar, Mari Jose, Iñaki, Ainhoa, Maider eta Ainara.

Talde bakoitzean lehenik eta behin ekosistema parte hartzen duten eta aurreko saioetan aipatu diren elementuak edo eragileak mahaigaineratu dira, orain arte hauei buruz egindako ekarpenekin. Elementuak hauek izan dira:



Behin elementuak aurkeztuak izan direnean taldekideek hurrengo panelean elementu hauek nola kokatu eta beraien ean nola interakzionatzen duten hausnartu behar izan dute:



Lehen taldea:



Lehen talde honetan **pertsonari** eman zioten garrantzi gehiena eta neurri ia berean zaintzaileei, bai sare naturaleko zein profesionalei.

Idea klabeak izan ziren pertsonaren duintasuna eta pertsona sentitzea, bere borondatea, laguntzen uztea... eta baita zaintzaileen beharrak, denbora, baliabide beharrak errespetatzea.



Ondoren **familia** aipatu zen. Bere garrantzia zaintza jasotzen duen pertsonak mahaigaineratu zuen, bere kontzeptutik elkartzeko gunea.

Jarraian **Gizarte eta osasun zerbitzuak** aipatu eta azpian kokatu ziren. Beraien arteko koordinazio beharra ere nabarmendu zen, eta hau Gizarte zerbitzuetatik oso beharrezkotzat jo zen. Medikuen errotazioari aipamena

egin eta zerbitzu hauetatik jasotzen den laguntzaren balioa mahai gainean re jarri zen.

Gero tartean eta pertsona eta familiaren gertuagoko bezala etxean jarraitzeko sortutako **zerbitzuak** leudeke. Oso beharrezko bezala jo zuten bai zaintza jaso eta baita zaintza ematen duten pertsonen eskutik.



Boluntariora, elkarreak eta bizilagunak elkarrekin jarri ziren guztiaren albo batean. Guzti honen inguruko kultura landu eta sustatu beharra nabarmendu zen.

Beste elementu guztiak, sostengu bezala adierazi ziren eta elkarren osagarri. Usurbili dagokionez, ongi osatuta daudela baina auzoren batean gabeziaren bat badagoela adierazi zen.

Bigarren taldea:



Taldeak, ekosistemaren irudikapenarekin hasi aurretik erreflexio ezberdinak burutzen ditu. Lehenik eta behin, **pertsona** erdian jarri behar ote den edo ez eztabaidatzen da. Ikuspegi orokor batetatik, eraldaketa herri guztiari dagokion zerbait izanik, herria erdian kokatzea proposatzen da. Ondoren, herriaren garrantzia haintzat hartuz, pertsonarengandik gertu kokatzen da, baina zaintza laguntza beharrean dauden pertsonen behar eta nahiei egokitu beharko litzatekeen kontutan harturik, pertsona erdigunean kokatzen da.

Erdigunean **etxea** ere kokatzen da, honen garrantzia azpimarratuz, baina baita etxe mota ezberdinei erreparatuz.

Zaintzaileen garrantzia ere irudikatzen du taldeak, pertsonarengandik nahiko gertu. Honi dagokionez, zaintzaile mota ezberdinei arreta jartzearen beharraz jarduten da taldea. Zalantzak ageri dira zaintzaileari dagokionean, zaintza familiarrari edo profesionalari buruz ari garen. Zentzu honetan, bai zaintzaile familiar nola zaintzaile profesionalak kontutan izan behar direla aipatzen da, eta zentzu honetan, genero berdintasunari erreparatzea eskatzen da, irudiak berak hau isaldatzen baitu, zaintza emakumeek sostengatzen dutela alegia (beste irudikapen baten beharra komenigarria litzateen ere aipatzen da labur labur...) eta gizonezkoek ziantzan jokatu beharreko papera aldarrikatuz. Zentzu honetan, zaintzaren balioa berrestearen beharraz hitz egiten da: "zaintza balioan jartzen denean, eredia aldatuko da". Honekin loturik, zaintzen dauden pertsonen lan baldintzak aipatzen dira, eta baita sozialki duten aintzatespenaz.

Zaintzan **familiak** duen garrantziaz jabe da taldea, baina berriro ere zehaztaper bat egiten du. Familia esaten den lekuan komenigarria litzatekeela **konfidantzazko pertsonak edo sare afektiboak** irudikatzea, beti ere familiak ez baitu funtzio hau betetzen eta "odoleko familiaz" nolabait, hau espero da. Legeetan ere zehaztaper hau kontutan izatearen garrantziaz jarduten da.

Ekosistemaz ari garela, **boluntariotzaren** papera argia da taldearentzat, eta zentzu honetan, aipamen bat egiten da. Boluntariotzak ez luke sistemak berak dituen gabeziak estaltzeko edo konpentsatzeko balio behar. Beraien funtzioa beste bat da eta pertsonen partehartzea ahalbidetzearekin lotzen dute, besteak beste.

Zerbitzuak direla eta, pertsonengandik hurbil egotearen beharraz jarduten da. Auzoetan zerbitzuek duten garrantziaz, eta baita zerbitzuek ekosisteman izan behar

duzen paperaz. Zerbitzu bezala, bi jartzen dituzte erdiko borobilaren ipar eta hegoaldean: **Gizarte Zerbitzuak** eta **Osasun Zerbitzuak**, hauen arteko koordinazio beharra eta zaintzen antolaketan izan beharko luketen lidergoa azpimarratuz.

Azkenik, erdiko borobiletik kanpo, baina honi ia pegatuta borobilean zehar, **bizilagunak, elkarreak, garraioa, aire libreko guneak, ekipamenduak, merkataritza, hostalaritza eta farmazia eta programak** kokatzen dituzte. Ekosisteman guztiok zeregina dugula eta guztiok garrantzitsuak garela aipatzen da. Garraioak egunerokotasunean duen garrantziaz solasten da, baita merkataritza, farmaziak, etb eman dezaketen babesaz eta azkenik bizilagunen paperaz, baina ez du zehaztapen gehiagorako denborarik ematen

Hirugarren taldea:

Ekosistema irudikatzeko unean lehenik eta behin **pertsona** erdigunean kokatzea erabaki da aho batez. Hasiera batean oinarritzko edo ezinbesteko zerbitzuak ere gertu jarri beharko lireratekeela pentsatzen da eta nola ez familia eta zaintzaileak. Pertsona etxean egotea nahi badegu **etxean zerbitzuak** egotea garrantzitsutzat jo dute.



Gizarte eta osasun zerbitzuak ere inguruan ikusten dituzte eta ezinbestekotzat jo dute bi hauen arteko koordinazioa. **Etxea eta etxebizitzan zerbitzuak** ere hauekin batera irudikatzen dituzte, dena koordinazioan.

Zaintzaileaz ari garenean zein den zaintzailea hausnartu da. Familiarra? profesionala? Gure gizartean zaintza gaur egun familian oinarrituta dago, eta familiak ezin badu? Irudikatzen degun ereduak familian oinarrituta izan behar al du? Berez eredu honek pertsona ahal eta autonomoen izatea lagundu beharko luke jasotzen dituen zerbitzuekin. Etorkizunean familiak ze paper jokatuko dute orduan?

Bizilagunak aipatu direnean bizilagunez gain **Lagunak** aipatu beharra sentitu da, lagunak oso garrantzitsuak direlako, batzuetan familia baino gertuago bait daude. Bizilagunen laguntza galdua dagoela aipatzen da eta etorkizunari begira lagunak oso garrantzitsuak izango direla esan da.

Pertsonaren ingurune **hurbilean familia, lagunak, bizilagunak eta zaintzailea** jarri dira. Zaintzaile hau binkulo afektibotik identifikatu da eta bestetik etxeko zerbitzuetaz ari garenean zaintzaile profesionala aurreikusten da. Hausnarketa honen ondoren bi zaintzaile desberdin jarri nahi izan dituzte: bat ingurune hurbilekoak diren pertsonak eta bestea etxeko zerbitzuetan eta etxea bezela joka dezaketen ekipamenduetan dauden zaintzaileak.

EBALUAKETA

Saioaren amaieran ebaluaketa horria bete dute 13 partaideek. Hona hemen emaitzak:

AURREIKUSPEN, HELBURU ETA PARTE-HARTZEAREN INGURUAN

	Bai	Ez, zergatik	EE*
1. Bete ditu bilerak zure aurreikuspenak?	13		
2. Lortu dira aurreikusitako helburuak?	13		
3. Parte-hartzeko aukera eman zaidala uste dut	13		

*EE: ez du erantzun

ANTOLAMENDUA

	Egokia	Hobetu daiteke	Zertan hobetu daiteke?
Iraupena	13		
Lekua	11	2	Akustika hobetu beharko litzateke
Ordutegia	13		
Antolamendua oro har	13		

IRADOKIZUNAK

Oso hausnarketa interesgarria gaurkoa ere, mila esker

Oso gustora sentitu naiz, pozik.

HURRENGO BILERA

urriak 18

15:30etan

Potxonean

m8

emakumea ta zaintza ta...

